

Altza

«Fidel Castrok hitzaldi batean agurtu egin ninduen»

Alvaro Larequi duela 18 urte hasi zen boluntario lanetan. Egun, 71 urterekin, Hegoamerikan, Asian eta beste hainbat herritan jendea laguntzen ibili ondoren, bere proiektuen berri eman digu auzotar honek. Inoiz baino indartsuago dagoela ere esan digu.

Sara Soria

Nola hasi zinen laguntza ematen?

Droga-menpekoekin eta hiesaren eraginez hiltzorian zegoen jendearekin lanean hasi eta berehala konturatu nintzen laguntza gustura eskaintzen nuela, denok eginkizun bat genuela bizitzan eta nirea besteei laguntzea zela ohartu nintzen. Geroago, "Ayuda en acción" izeneko erakundearekin proiektuak aurrera eramaten genituen Añiako, Amerikako eta Afrikako toki txiroetan. Erakundea herrialde horietako lagunekin jartzen zen harremanetan eta laguntzen saiatzen ginen, baitik bat, haurrak.

Orain, ordea, zure kabuz ari zara herrialdez herrialde.

Bai, herrialde txiroak barrutik ezagutzea erabaki nuen.

Gainera, erakundeko lana aitzalditzat nuen. Jubilatu nintzenez, ordea, bidaia luzei ekin nien. Egun, nire esperientziaz baliatuta, Frantziako boluntario batzuekin, herrialde txiroak bisitatu eta botikak eta jantziak eramaten ditugu. Nire ustez, norberak hasi behar du mundua aldatzen, aldaketak ez dira soilik erakundeen esku utzi behar. Horrez gain, erakundeak hazten direnean ezerezean geratzen dira, gizatasuna galtzen dute.

Arriskutsua al da horrela aritzea, erakunderen baten babesik gabe?

Bai, baina gogotsu nago. Auzartegi ez naizen arren, erronkak gustuko ditut eta borrokalaria naiz. Kolonbiako Bogota hirian, esaterako, umeei organoak lapurtzen dizkiete. Behin, han geundela, tiro egin ziguten paramilitarrek eta kide




frantziarra hil zuten. Honelako gertaerak jasan eta gero, ez nau ezerk beldurtzen. Egia esan, oro har, zorte handia izan dut. Izan ere, elefante batetik erori izana izan da istripurik handiena. Bestalde, Mitch hurakanari txiripaz izkin egin nion eta Golkoko Gerrak ere egun batengatik ez ninduen bertan harrapatu.

Proiektu bat ere aurkeztu diozu Eusko Jaurlaritzari. Zertan datza?

Kubako auzo baztertueta lan egiten ari gara eta ni nahiko ezagun naiz han. Bertako auzo bat Bartzelonako erietxe batekin senidetuta dago, eta niri Habanako Cerro auzoa eta Altzaren arteko antzeko zerbait egitea proposatu zidaten. Eusko Jaurlaritzan aurkeztu nuen proiektua, baina ez dut erantzunik jaso. Casares kultur etxera ere jo nuen, baina ez nuen ezer lortu.

Hainbeste bidaia egin ondoren, pasadizo bat baino gehiago izango dituzu kontaktzeko, ezta?

Baten bat aipatzearen, Kuban nintzela senidetzeko kontuaren haritik, Fidel Castrok, hitzaldi batean. "Alvaro, Euskal Herritik etorritako laguna" agurtu zuen!



euskararen donostia



Donostia Udala
Avda. Maritimo 64-66 48100 San Sebastián

Euskara ikasteko dirulaguntzak

- Donostiarrentzat euskara ikasteko dirulaguntzak
Eskabideak aurkezteko epea: Irailaren 23tik Urriaren 14ra. 2.000etatik 13.000etara. Euskararen Udala Patronatuaren.

Txontxongiloak

- "Marrubizko printzesa" Gus taldea
Urriaren 5ean, 17.00etan
Ernesto Lluch, Amarako Kultur Etxean

Erakusketa

- "Ura birtza gutzirako" Eskola taldeentzako bisita gidatuak. Ordua hartzeko deitu: 243454605
Eorriako Kultur Etxean

Liburuak

- "Donostia, hiri bat literaturari" **Literatura baten hiria**
Idazle: Biltzailea. Koldo Izagirre
Donostia: XX. mende euskal literaturari. Alberdania. Bertako saila. Euskararen Udala Patronatuaren laguntzaz.
- "Donostia: haren garbia" Idazlea: Gotzon Egla
Irutxulo aldizkarian donostiar euskaldunen buruz jakieratutako artikuluen bilduma Alberdania. Bertako saila. Euskararen Udala Patronatuaren laguntzaz.